

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### **Behin betiko onestea 19. sektorearen (Aretxabaleta-Gardelegi) plan partzialaren hamabigarren aldakuntza**

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 19. sektorearen Plan Partzialaren hamabigarren aldaketa puntualari dagokionez, Udal Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 22a ondoko erabakia hartu duela jakinarazten dizut:

1. Izkiz Promociones, SL enpresak sustatutako eta J. G. L. arkitekto jaunak idatzitako 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren hamabigarren aldaketa behin betiko onartzea.
2. Arabako Foru Aldundiari Planaren kopia bat igortzea (gordailatzeko), eta 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren hamabigarren aldaketari buruzko erabaki hau ALHAO aldizkarian eta tirada handieneko egunkarietako batean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik.
3. (Aretxabaleta-Gardelegi) 19. sektoreko hitzarmen-batzarrari eta Aretxabaleta eta Gardelegiko administrazio batzarrei erabakiaren berri ematea
4. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 2an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**